



Venezuela

Bolivarren ametsaren atzetik

Hugo Chávezek Venezuela “eraldatzeko” ardura hartu zuen 1998an. Orduetik hona, herriak 2007ko abenduan baino ez dio biderik trabatu. Chávezek 1999an bultzatutako Konstituzioa aldatzeko erreforma onartzera deitu zituen herritarrak, “demokrazian sakontzeko”. Azken erreferendum hori, baina, Chávezek galdu du eta, hala ere, ez da bere gainbeheraren hasieratzat hartzen.

MARIA GONZALEZ

BIGARRENEZ GOBERNUBURU izendatzeko zazpi milioi venezuelarrek euren konfiantza eman zioten, 2006ko abenduan. Handik urtebetera, ordea, Chávezek hiru milioi boz galdu ditu eta oposizioak ehun mila inguru botorengatik irabazi du (%1,75). Ciudad Bolívarreko Unibertsitate Boliviarreko irakasle Pedro Fajardok azaldu duenez, proiektu iraultzaileak bidean galdutako hiru milioi herritar horiek, aldeko botoa emateko beldurrez, abstentzioa jotzea hobetsi dute. Izan ere, oposizioak zabaldutako beldurrak bi mezu nagusi hedatu

zituen: diktadura eta kubanizazioa. Lehenengoaz, Chávez etengabe presidentziarako hautagaia izateko bidea zabaltzeari boterean betikotzeko estrategia iritzi zioten. Europako herrialderik gehienetan, baina, presidentek eta bestelako politikariak etengabe hautagai aurkez daitezke. Gainera, Chávezek bultzatutako 1999ko Konstituzioak edozein kargu publiko (presidentea barne) agintaldiaren erdia bete eta gero boteretik kentzeko erreferenduma ahalbidertzen du. Bestetik, erreformak jabetza pribatuaren eskubidea bertan behera

utziko lukeela zabaldu zuen Chávezen kontrako oposizioak.

Hala ere, Chávezek ohiko sozialismotik alendu eta Hego Amerikan oinarritutako kulturatik abiatutako iraultza egin nahi duela dio Fajardok. Hortaz, XXI. mendeko sozialismoa Simon Bolívarren idatzietan, herri indigenen baloreetan eta humanismoan oinarritzen da. Hugo Chávezek bere proiektu hori gauzatzeko bost urrats zehaztu ditu: ahalbidetzen duen legea, Konstituzioaren erreforma –erreferendumak onartu ez duena–, balore sozialistetan oinarritutako hezkuntza, Administrazioaren antolamendu berria eta herri boterea. Erreforma osoa gauzatzeko biderik ez egon arren, Venezuelak badu 1999ko Konstituzioa aldatzeko hainbat bidezidor. Lehenengo eta behin, presidentek salbuespen egoeretan arau ditzakeen dekretuen bitartez, zenbait gairen inguruko erreforma aurrera eramango duela aurreratu du Chávezek –esaterako, lanbide liberaletako beharginentzako onura sozialak banatuko dituen fondoa–. Hala ere, Chávez 2012ko hautagaia izateko lege ekimena martxan jar daiteke.

Hego Amerika batua

“Bolívar ehun urtetik behin esnatzen da, herria esnatzen denean”, idatzi zuen Pablo Nerudak. Simon Bolívarren Hego Amerika batua-aren ametsa ziklikoki bueltatzen da. Bolívarren ostean, Che Guevararen amets iraultzailea etorri zen.

Orain Chávezek Kolonbia Handiaren ilusioa berpiztu nahi izan du, munduari Hego Amerikatik begiratzeko eskubidea, hain zuzen. Bide horretan, AEBetatik alendu eta ekonomia autozentratua bultzatzeko pausoak eman ditu: hala nola ALBA –ALCA merkataritza libreko hitzarmenaren alternatiba– eta Bancosur –Nazioarteko Moneta Funtsaren eragin-esparrutik ateratzeko itxaropenarekin–. Beste hemisferioan, ostera, Chávezek gainerako herri horiek “menderatu” nahi ote dituen beldur dira.

Horretarako, Chávezen beraren aurkako irainak nagusitu dira eta ez bere politikaren kontrakoak. Bere gaitasun intelektuala sarritan zalantzan jarri da, ikuspegi kolonialistak ematen duen nagusitasunetik. Hortaz, balizko zuhurtasuna baino, egindakoengatik erantzutea saritu dute venezuelarrek. Izan ere, 1992an Carlos Andrés Pérezen diktaduraren aurka altxatu eta kale egin ondoren, Chávezek ardura osoa bere gain hartzea txalotu zuten hautesleek, hura lehenengoz presidentegai aurkeztean. Herriak ere babes osoa eman zion 2002an bere kontrako estatu kolpearen ondoren. Orain, argi azaldu du azken erreferendum hau galdu egin duela.

Ohiko sozialismotik alendu eta Hego Amerikako kulturatik abiatutako iraultza egin nahi du Chávezek, Simon Bolívarren, idatzietan, indigenen baloreetan eta humanismoan oinarrituz

Venezuelaren 2008ko erronkak

Hugo Chávezen politikak hiru ardatz nagusi ditu: hezkuntza, osasuna eta etxebizitza. Aurrekontuko diru kopuru altuena hezkuntza gartzera zuzendu du. 0 eta 6 urte bitarteko ume guztientzako haur-eskola zerbitzua martxan jarri du, Lehen Hezkuntzako Eskola Bolivariarrak sortu ditu –ikasleek bertan gosaria, bazkaria eta askaria doan dituzte– eta Unibertsitate Bolivariarrak ugaltu ditu.

Bigarrenaz, osasun zerbitzu unibertsala bermatu nahi izan du Hugo Chávezek. Hortaz, lehen arretako medikuek herritar guztiak onartzen dituzte, baita gizarte segurantzarik ordaintzen ez dutenak ere. Urtetan, Venezuelako osasun zerbitzuak onartzen ez zituzten milioika herritarrek oinarritzko mediku-arreta doan izan dute. Hala ere, sarritan ospitaleek ez dute behar beste azpiegitura edukitzen eta hainbat herritarrek eskasia horixe kritikatzeko dute.

Etxebizitzak, azkenik, herri lurzorua erreforma ekarri du. Jabetza titulurik ez zuten txabolon jabeek orain euren etxearen eskubide erreala lortu dute. Landa lurzorua erreforma astiroago doa eta lurjabe handidunen interesen kontrako borroka horrek dagoneko hainbat hildako eragin du.

Aurrera eraman duen politikagatik, Chávezek bi boto-emaile talde ditu. Alde batetik, Venezuelako txiroak: euren etxean jabetza eman dien presidentetzat dute. Gainera, medikuntza zerbitzua doan jarri die eta hezkuntza eskubidea ere bermatu die. Bestetik, Chávezek indigenak ere bere alde ditu. Venezuelako historian lehenengoz euren eskualdeak babestu, hizkuntza eskubideak onartu eta hezkuntza elebiduna martxan jarri du.

Baina badira oraindik Chávez eta bere aurkako oposizioaren tentsio politikotik kanpo bizi nahi dutenak. Ez dute Chávez begi onez ikusten, ez eta oposizioa ere, oposizioan Venezuelako lehendakari ohiak daudelako, Rafael Caldera esaterako. Oro har, ustelkeriaren uste zabalak herritarrek konfiantza galtzea eragin du.

Urte Berri eguneko egunkari venezuelarrek 2008ko herritarren kezka azaldu zituzten. Segurtasunak arreta osoa bereganatu zuen, delinkuentziak gora egin duen sentimendua zabaldu baita. Egun horretan bertan eraldaketa ekonomikorako txanpon berria lehenengoz kalean izan arren, herritarrek ez zuten kezkatu hartu. Emakumeen eskubide-berdintasuna ere ez zuten aipatu, kalean gizon barik dabilen emakumerik topatzea zaila den arren. Kezka horien soluzioak noren esku utzi nahi dituzten hemendik lau urtera bozkatu beharko dute herritarrek. ■